

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZUMAIAKO UDALA

Iragarkia

Akats bat antzeman da 2022ko abenduaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (246 zk.) Zumaiaiko Udalak argitaratutako iragarkian. Zehazki, abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko, Zumaiaiko Udaleko administrazio bereziko eskalako erdi-mailako teknikarien (A2) azpieskalako plaza bat, gizarte langilea lanpostuari lotuta dagoena, behin betiko izaeraz betetzeko hautaketa-prozesua arautuko duten deialdiaren oinarrien onarpenaren iragarkian.

Horregatik, honen bidez dagokion zuzenketa egiten da:

7.3. Lehiaketa fasea puntuan,

— *Hau dioen tokian:*

Zerbitzuak modu honetan zenbatuko dira:

— Zerbitzuak lanaldi arruntaren barruan eskaini badira, erabiko den formula izango da lan egindako urte osotzat 360 egun hartzen dituen, eta lan egindako hilabete osotzat, berriz, 30 egun hartzen dituen.

— Zerbitzuak lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan eskaini baldin badira, kontaketa proportzionalki egingo da egiaz eskaini den denboraren arabera, betiere familia kontziliazioagatik murrizketak ez badira, horiek % 100ean zenbatuko baitira.

— Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

— *Honela behar du:*

Zerbitzuak modu honetan zenbatuko dira:

— Zenbatzeko, erakunde bakoitzean lan egindako aldien batura egingo da. Nolanahi ere, lanaldi partzialean edo lanaldi murriztuan lan egindako aldiak lanaldi osoan lan egindakotzat hartuko dira. Ezin izango da egun berean kontratu/izendapen bat baino gehiago zenbatu.

Halaxe argitaratzen da, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Zumaia, 2023ko abuztuaren 18a.—Alkatea. (6251)

AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA

Anuncio

Se ha detectado un error en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 246), de 29 de diciembre de 2022 en el anuncio publicado por el Ayuntamiento de Zumaia. En concreto, en el anuncio correspondiente a la aprobación de las bases de la convocatoria que regularán el proceso selectivo para la provisión con carácter definitivo de una plaza de la subescala de técnicos de grado medio (A2) de la escala de administración especial del Ayuntamiento de Zumaia, vinculada al puesto de trabajo de Trabajador/a Social, para la estabilización del empleo temporal derivada del artículo 2.1 de la Ley 20/2021, de 28 de diciembre.

Por ello, se procede a efectuar la oportuna corrección:

En el punto 7.3. Fase de concurso,

— *Donde dice:*

Los servicios se computarán de la siguiente manera:

— En el caso de que los servicios se hayan prestado bajo jornada ordinaria, la fórmula a utilizar será la que comprenda 360 días como año completo trabajado y 30 días como mes completo trabajado.

— Si los servicios se hubieran prestado a tiempo parcial o en jornada reducida, el cómputo se realizará proporcionalmente al tiempo realmente ofertado, siempre que no se correspondan con reducciones por conciliación familiar ya que éstas se computarán al 100 %.

— El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

— *Debe decir:*

Los servicios se computarán de la siguiente manera:

— El cómputo se efectuará realizando la suma de los períodos trabajados en cada entidad. En todo caso, los períodos de tiempo en los que se haya prestado servicio a tiempo parcial o con jornada reducida se computarán como trabajados a jornada completa. No se podrá computar en un mismo día más de un contrato/nombramiento.

Lo que se hace público a los efectos oportunos.

Zumaia, a 18 de agosto de 2023.—El alcalde. (6251)